

METROAN SUTAN

Metroan direnak, bizi, esistitzen direnak, baina hartan joateko diru gabeak, han ziren goiz hartan; 6'30ak dagoeneko dorre nagusiko erloju erraldoian. Txindurri gisa jende andana abiatzen da eskailaretatik behera, begiak ezerezean galdurik, aurpegia memeldurik, orrazkera baldarra. Zangalatraba, elkarri *sakatzen*, bultzaka. Ganadu *bilketa* dirudi, ez besterik. Marruak, han tunelean, urrutirago, tren artikulatuaren gurpil burnizkoek eransten dizkiote goizeko giroari. Metroaren ahoan, kalera begira dagoen lehen eskilarean ia, zarpaila dago hezurak mindurik, bart kristoren hotza egin bait zuen.

– Lismona bat, limosna bat txiro goseti honentzat.

– Limosna bat jauna, zuk ahal duzu, utz iezadazu erregali bat arren, faborez.... kabroi alena, kiskaliko al haiz infernuan!!!

Tunela argi borobilez argiztatua, lasaiago dago, duela ordu erdi langile sortak utzitako zigarro ke eta bestelako arrastoz horniturik.

Aurrerago, eskubian bi gaztek kitarra eta txirula jotzen, hasi berria dute bere kontzertua, oraindik nota disonanteak jaurtikiaz, delako tresnak hezeak eta haien ezarriak lehorrak bait daude.

Duro bat erortzen da larru beltzeko esku pulkrotik. Klonk!! Bakanak oraindik. Diruaren txin-txinak buelta arazten dio motxailari, umea magalean.


– Una limosna, por caridá. Caballero, señorito, usté vale, usté tiene, la Virgen santa se lo agradecerá, la buena suerte lo acompañe.

Horrenbesteko letaniak merezi izan du beste hogerleko bat; pausoa arinago, horrenbesteko geldiuonekin atzeratuko da gure gizona eta.

7rak eta 5. Leihatilan txanda iristean, hartzen du bere txartela, eskularruak kendu gabe ordaintzen hura eta metro batzuk haruntzago, letreroaren azpian dagoen aldizkari-dendan, egunkaria.

7'15. Iristear dago bere trena. Metroko erdigune-terminal honetan, orain, elkartuko dira lau tren, eta bakoitzak jaurtikiko du bere barrunbetako jende piloa, atea irekitzerakotan darioten txirrioarekin batera.

Ehundaka pertsona jeisten eta igotzen da batera, sakatzen, tropelka. Hura mila esku eta buruen herensuge bat dirudi. Atsedean labur bat dago, geltokian, batzuk kanpoko irtenbiderantz abiatu eta besteak tren barnean moldatzen dihoazen bitartean. Hartan, irterako kabina batetik sortzen da sute bat eta instant berean indar-kordioak polborineko metxa bat lez, sutan jartzen, takila ondoan dagoen aldizkari dendari, era berean garra bizia dario, irtetzea ezinezkoa da, trenak ezin dira mugitu indarrrik ez bait dago, argitasun bakarra, garrena da, bere mingain luzeak igotzen direlarik hormetan eskegita dauden anuntzioetan gora. Tuneleko zapaiak igortzen ditu su-garrak geltokiko beste aihekarantz.



Artean, berotasuna gero ta jasanezinagoa zen zulo hartan Trena tranpa bat bilakatu eta bertan sarturikoak ostikoka atear apurtu, ireki nahiean; azkarrenak leihoetatik salto egin, ahal zen bitartean, besteak orru bizian erdi erotuak, kea leiho ireki berrietatik barneratzen deneko.



Askotan, gaurko hizimoduaren eramenean murgildurik bizi garenez gero, ez dakigu zein ederra den hizitza.

Bizitza zoriontsuaren sekretua ez da diruan finkatzen, eguneroko gauza txikietan baizik.

Iluntasunean, erdi totelduak buruak, biriak leherzorian, tunela badirudi heriotz atarirako bidea. Oihu ozenek, karraxiek berpizten dute bai eta lokartuena ere.

Geltokiko erdialde bat eta hango bi trenak sutan daude, beste erdia haren gorritasunez argiturik. Su gabeko azken bagoiek utziriko zirrikituetatik ahal dutenek salto egiten dute tuneleltzarantz abiatuz, ke atmosfera batetan igerika, beste andena eskuratu nahiean ihesbide bakarra infernu gorri hartan.

Beste zenbaiten artean sutan dagoen gorputz baten eskularruak garra urdinxkak jaurtikitzen ditu giroko gorritasunarekin kontrastatuz.

EDU ZABALA